

Hitzaldiak, bideoak, kantuak, marrazkiak, dantzak... kultur astea betea eta oparoa izan da



Urriaren 18tik 25era izan da aurten Zeraingo kultur astea. Urriaren 18an, igandean, iraupen erdiko zaldi lasterketa izan zen. Hamabost partehartzaile izan zituen eta animalia bikainak ikusteko aukera izan zen. Urriaren 19an, herri-museoan egindako berrikuntzen berri eman zitzaizen herritarrei; asteartean energia berriztagarriak izan ziren hizpide; asteazkenean ardi-izenei buruz aritu zen Mikel Zalbide; ostegunean Goyaren familiaz izan zen hi-

tzaldia. Ostiralean, berriz, Pirritx eta Porrotx pailazoek Zerainen eta zeraindarrekin egindako pelikula estreinatu zuten. Larunbat goizean marrazki lehiaketa egin zuten txikienean. Eguerdian kantu-bazkaria izan zen pilotalekuan; eta ondoren, Alurr dantza taldeak ikuskizun paregabea eskaini zuen. Asteari amaiera, igandean, jubilatuen egunarekin eman zitzaion. Zapore oneko ekintzez betetako astea izan da aurtengo kultur astea.

Kultur astea argazkitan



Aurten lehenengo aldiz antolatu da kantu-bazkaria. Ederki bazkaldu ondoren, liburuxkak eskuetan hartu eta euskal abestiak kantatu zituzten bildutakoek. Ondoren Alurr dantza taldearen ikuskizuna izan zen pilotalekuan bertan.



Herrian zehar bi zirkuitu egin zituzten zaldiek eta zaldizkoek. Irteera eta helmuga, berriz, plazan izan ziren.



Joxe Mari Agirretxeri, *Porrotxi*, Zerainen lagun izendatzen dituen pergamina eman zion Jose Manuel alkateak.



Goizean plazan haurrek egin zituzten marrazkiak ikusgai egon ziren ondoren pilotalekuko sarreran.



Patxi Etxeberria eta Joxe Agirre bertsolariek alaitu zuten jubilatuen eguneko bazkaria.

Piriika

Entzun gabea nuen hau ere. Entzun gabea edo, nahiago baduzue, buruan gorde gabea. Esaten entzungo nion Zerainen, akaso, bati baino gehiagori. Ez nion ordea atentzioa jarriko, eta entzun ahala ahaztu egingo nuen. Zenbat aldiz gertatzen zaigu, izan ere, halakorik.

Galtzen ari da, nabarmen, *piriika* hori. Urrutietxeko Mariterrek hala aitortu dit: "umetan eta geroxeago ere ez genuen besterik ahoan; orain, berriz, ez da kasik entzun ere egiten". Gauza bera konprobatu du, bati eta besteri galdetuz, Elenak. Edade batetik gorako zeraingarretan ba ote inor, *piriikan* joatea (edo *piriikan* ibiltzea) zer den ez dakienik? Apenas. Adin batetik gorakoek ondo asko dakite zer den: zerbaite edo norbaite goitik behera bueltaka joatea. Beti-beti ez du goitik behera joan beharrik. Argazkian ikusten denez, burdin uztaiak berdinean ere joan litezke *piriika*: norbaitek eragin behar horretarako. Argazkiko haurrek, herriko plazan, hala egiten zuten oraindik urte asko ez dela, lehengo ohiturak gogoratzeko saio hartan. Garai batean, orain dela 40 bat urtera arte, umeen artean oso ohiko jokoa zen *piriika* egite hori. Aro borobila kaka-dun burdinarekin bultzatuz eta gidatuz egiten zen jolas. Adibide gehiago ere jaso ditu Elenak, hitz horren erabilera: "bidean behera *piriikan* joan zaigu pelota", batetik, eta "eskailertan estropozu egin eta *piriikan* beheraino erori da" bestetik. Besterik ere galdetu du Elenak: nola esaten diote hitz horri Goierrin, inguruko herrietan? Erantzun argia atera du: Luis Etxaideren esanean, *pirika* esaten diote horri Idiazabalen. Martin Irazustabarrenak eman dio, azkenik, Zaldibiko informazioa: *piriikan* esaten omen diote bertan bueltaka ibiltze horri.

Adin batetik gorakoek ondo eza-guna dute hortaz, baina galtzen ari da. Galdetu berri die Elenak herriko umei eta gaztetxoei, *piriika* joan edo *piriika* ibili zer den. Emaizta argia jaso du: hitzaren berri badute, batzuek behintzat; baina ez dute erabiltzen. Horra beraz, berrirori ere, galduz doa-

zen hitzen parade-roa. Zaharrek hitza ezagutu eta erabili egiten dute; adin batetik beherakoek ezagutu bai, baina erabili ez; azken fasean, gaztetxoen artean bereziki, hitza ezagutu ere ez da egiten.

Z e r g a t i k ? Aldakuntza teknologikoa ezin da oraingoan aipatu. Orain ere *piriika* joaten dira gauzak eta pertsonak. Zergatik ari da, beraz, hitza galtzen? Beste era batera esaten delako, lehen *piriika* esaten zen hura. Nola esaten diote orain Zeraingo gazteek, *piriika* joate horri? Herriko gaztetxoei galdetu dienean Elenak, erantzun bakarra eman diote: "buelbaka joan". Horixe da guztia: lehen *piriika* esaten zena, orain *buelbaka* esaten da. Herriarren hitz-altxorra nabarmen aldatzen ari da. Unean uneko beharrei erantzuteko buruan prest daukaten artsenal lexikoa, beren hiztegi partikularra, nabarmen aldatzen eta, ohiko hitz-altxorrari dagokionez, oro har murrizten ari da. Argi ikusten da hori Zerainen, belaunaldi biren edo, hobe, hiruren tartea konparatzean: 60 urtetik gorako zeraingarrek inolako arazorik gabe, zehatz eta bizi darabilten hainbat hitz zirkulaziotik kanpora utzia daukate 15 urtetik beherakoek.

Kontu hori ez da Zeraingoa bakarrik. Ondotxo jeneralagoa da. Aldakuntza horren zati bat, motiboei dagokienez, aski unibertsala da: amahizkuntza eskuratzeko fenomeno luzea da, konplikatu ere bai: hitzen erabilera kontestualaz jabetzea eskatzen du gurasoen eta inguruko pertsona helduen hizkera biziare bere osoan jabetze horrek. Zer hitz eta zer esamolde noiz-non, norekin eta zertaz jarduteko, den egoki ikastea eskatzen du horrek. Ikasketa hori ez da inoiz %100ekoa izaten. Era askotako fenomenoak direla medio, ohiko hitz-altxorraren belaun arteko transmisio hori partziala izaten da oro har



eta, kasurik sinpleenean ere, gizarte-berrikuntzak berekin dakartzan eten-urratze teknologikoen, ekonomikoen, politikoen eta soziokulturalen mende egon ohi da. Ele bakarrek gizartean ere, iloben hizkuntza (bereziki hitz-altxorra) gutxitan izaten da beren aitona-amonen hitz-altxorraren kopia huts: Valladoliden ere, 80 urteko edo hortik gorako aitona-amonak gutxi ikusiko duzu *flipatzen*, supermerkatuan topo egin duen fruta-saltzaile *friki* bategatik. Gutxitan entzungo diezu pertsona zahar horiei inori galdetzen, telefonoak *bluetooth*-a duen ala ez. Beste garai batekoa da haien hitz-altxorra, bestelako adierazbeharrak zituen garaikoa, eta garai haren marka-seinaleak bekorian iltzaturik daramatzate aitona-amonak. Fenomeno unibertsala da hori, ez gurea bakarrik.

Fenomeno unibertsal hori, dena den, gure situazio partikularra erantsi behar zaio. Ez gara ele bakarrek gizartean bizi, ele bikoan baizik. Bertako hizkeraren eta euskara batuaren akomodazioa ere hor dago, bestetik. Batak zein besteak ondorio jakina ekarri dute gure artera: errazago datozkigu burura, askotan, erdarazko hitzak euskarazkoak baino. Hori dela medio, euskarazko jardueraren arruntan arras etxekotuak genituen formak alde batera utziz goaz sarri, eta kanpotik hartutakoak ari zaizkigu indartzen: *piriika* joan edo *piriika* ibili ordeztuz, *buelbaka* ibili esaten dugu lasai asko.

Mikel Zalbide eta Elena Mendizabal



Xagu-txoko



Babesetik

IRAILA	al	ar	az	og	or	lr	ig
		1	2	3	4	5	6
Euria (l/m)		1,5	0,5	0,5	2	0	0
C° altuena		23	26	23	21	22	30
C° baxuena		19	15	16	14	11	10
	7	8	9	10	11	12	13
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	0	0
C° altuena	31	32	27	27	26	25	23
C° baxuena	14	18	19	17	15	15	14
	14	15	16	17	18	19	20
Euria (l/m)	0	3	7	1	97	6	8
C° altuena	22	21	17	22	16	17	20
C° baxuena	15	11	11	9	12	11	11
	21	22	23	24	25	26	27
Euria (l/m)	9	0	0	0	0	0	0
C° altuena	20	19	25	25	23	23	23
C° baxuena	14	14	15	15	14	14	15
	28	29	30				
Euria (l/m)	0	0	0	GUZTIRA: 135,5l			
C° altuena	24	25	24	ALTUENA: 32°			
C° baxuena	15	15	15	BAXUENA: 9°			

Eta irailean... euria!

Uda lehor eta beroaren ondoren irailan euria egin zuen hilaren 18an, udazkena bazetorrela adierazteko edo, egun bakar batean ia 100 litro bildu ziren. Udaberria balitz bezalaxe berdetu ziren zelaia. Bestelakoan bero eta lehorretik jarraitu zuen, uzta biltzeko giro ona. Argazkian ageri diren txorten berean dauden 6 in-taur aleak, ere aurki eroriko dira.



Turismoko kalitateari buruzko antzerkia izango da urriaren 31n



Turismoan kalitateak duen garrantziaz jabetuta, Zeraingo zerbitzu guztiek lortu zuten praktika onen egiaztagiria. Turismo bulegoak Q ziurtagiria ere jaso zuen. Horiek horrela izanik, Zerain kalitatezko gunea da zerbitzuari dagokionez. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak kalitatea sustatze-

ko antolatu duen kale-antzerkia herrira iritsiko zaigu urriaren 31n, larunbata. Goizeko 11:30etan herriko plazan *Trapu Zaharrak* antzerki taldearen emanaldia izango da. Turismoko kalitatea gaitzat hartuta prestatutako obra da larunbatean eskainiko dutena.

Ur kontsortzioaren oharra

2009 urteko hirugarren hiruhilabete-ko ur-kontagailuen irakurketak urriaren 19ko astean hasi ziren. Etxetik kanpo daudenei irakurleak etxean utzitako JAKINARAZPEN ZEDULA betetzeko eta 902 30 22 22 bezeroaren telefono zenbakira deitze-ko eskatzen die ur-kontsortzioak.

Santu Guztien eguna

Azaroaren 1ean, Santu Guztien egunean, San Blas ermitan izango da meza. Goizeko 10:45ean izango da hildakoen aldeko ospakizuna.

Ikerketarako laguntza

Gerriko Ikerlan Bekarekin egiten ari diren gazteen mugikortasunari buruzko ikerketarako laguntza eskatu dute. Guztira Zeraingo 8 gazte behar dira inkesta bat betetzeko: 18 - 24 urte bitarteko 2 emakume eta 2 gizon; eta 24 - 29 urte bitarteko 2 emakume eta 2 gizon. Prest daudenek udaletxera dei dezatela.